

GOIAN BEGO

Markel Txasko Galarraga

Errenteria

Atea danbateko ozen batez ireki zuan. Kanpoko argi lotsagabeak gela zikin eta ustela argitu, eta, hi, Iñigo, sartu hintzen atetik, arrapalada batean, tximista bat bahintz bezala.

– Aita! Lortu dut! Lortu dut ! –oihukatu huen, pozez gainezka.

Baina hire poz eta algarak berehalakoan lurrundu zituan; aurpegia harrizkoa bihurtu zitzaian. Hantxe geundean, bai, geure gela bakarreko etxe zikin hartan; herriko apaiza on Manuel, Sebastian unaia, Juan artzaina, herriko hiruzpalau neskazahar eta ni. Bertan kabitzen gintuanak. Denok aitaren gorpuari begira, hor zetzan zerraldo, inoiz esnatuko ez den loti ederraren antzera. Hik, heure aurpegi zurbildua goibeldu, eta burua makurtu huen; ahots koldarrez besteok jada errepikaturiko bi hitz errepikatu hituen:

– Goian bego.

Beti egoten dituk hitz batzuk entzunda ere sinestea kosta egiten direnak, edota sinetsi nahi

ez dituanak. Haiek zituan, ziur aski, nire bizitzan entzun izan ditudan mingarrienak. Eta jakik hau, anaia maitea, oraindik ere hitz hauek entzuten ditudanean min-zitadek jotzen naitek ankerki.

Denborak, ordea, bere ohiko errutina unagarrria ezarri zian. Aita pozoitu zutela zioskutean, eta hik, beti lez kontsolatu ninduan. O, bai! Nola ez, gure anaia zaharrak, adoretsua eta indartsua izaki, ez zian behin ere negarrik egingo. Hik dena heukan, jakina! Aitaren lurrak, aitaren behiak, aitaren dirua. Iñigo Handi-mandia. Eta ni, anaia inozentea, ergela. Leloa. Aitak askotan ziostaan: “Mikel, ikusak Iñigok egiten duena, egik hori eta bide onetik joango haiz!! Ba al hekien? Saihetsetaraino sartzan zitzaizkidaan sasadada bortitzak izaten zituan hitz gordin haiek.

Oraindik gogoan zeukaat aitaren hiletaren osteko eguna. Hik heure tratu ospetsu hura itxi berria heukan, eta karabela horietako batean joan hintzen, beste lurralde ezezagun batzuetarantz, negozioetan edo. Haizeak eta euriak geure etxe xumeko paretak bortizki kolpatzen zitiztean, olatuek kostaldeko harritzarren aurka jotzen duten bezalaxe. Eta hotzak nengoan, dardarka, mahai gainean zegoen kandelaren argi ñimiñoaren antzera. Baina sua piztua zegoan, eta ez nian arropa, tapaki edo mantu beharrik. Ez nian hotzik gorputzean, ulertzen? Barrunbee-

tan baizik. Hala pasa nian gau beltza, eta ez nian amestu, ametsak izoztuak egongo zituan nonbait, atera ezinean.

Hurrengo goizean beleen karrankak esnatu nindian, eta geure etxetxo zikinetik kalera atera ninduan. Egunsentiko eguzki epelak aurpegia laztandu zidaan. Epeltasun hura barrunbeetaraino iritsi zuan nonbait, bertako izotza urtu eta negarrez hasi baininduan. Aitaren hutsa izango zuan agian. Edo hirea, apika.

Denbora joan-etorrian ibili zuan. Eta hala, egunak, asteak, urteak pasa hituen etxetik at. Bien bitartean, dirua bidaltzen hidan, diru anitz. Eta etxea erabat berritu nian, eta lurrak zabaldu, eta aita zenaren behi kopurua laukoiztu, eta arropa dotoreak, garestiak erosi; inguruko nobleziaren pare jarri gintuan. O, bai! Ederto oroitzen nauk. Nahi adina diru, nahi adina neska, nahi adina morroi. Eta zertarako? Bakarrik nengoan; ez neukaan inor alboan. Eta barrunbeetan oraindik ere izotza nian, izotz bel-durgarri bat, izotz jasanezin bat.

Neguko egun hits horietako batean iritsi hintzen, beirazko leihoak lausoturik zeudean, eta kandlek jauregitxoko pareta hornituak argitzen zitiztean dardara dantzari batekin. Inaziok, nire mirabeetako batek, hire etorreraz jakinarazi zidaan, eta bat-batean, atea ireki eta barrura sartu hintzen. Purpura koloreko kapa luze bat

huen soinean, eta kapelu urdin ilun bat buru gainean. Hala mintzatu hintzaidan:

– O, Mikel, Mikel. Ene unai xumea, aspaldiko!

Besarkada batzuek hamaika sentimendu baino gehiago transmititzen ditiztek aldi berean, itsasertzeko haize leunak egiten dian era bertsuan. Ba besarkada hura, horietako bat izan zuan dudarik gabe. Nire barruetan zerbaitek eztanda egin zian, eta bizkarra tentearazi zidaan, gorputzean zehar nitian ile zimelak puntetan jartzen zituan heinean. Sekulako zirrara bizitu nian une hartantxe.

Hire bidaia eta negozioen berri eman hidan, eta dena ezin hobeto zihoala hioen. Jada aberatsak gintuan eta dena hiri esker. Nola ez. Baina oraindik ez hengoen azken berrien jakinaren gainean. Herrian ahoz aho zebilean hi izan hintzela aita zenaren hiltzailea. Maria Teresa, Sebastian unaiaren emaztea, izan zuan salataria. Ni erabat ziur nengoan ez hintzela hi izan, baina badakik nola gustatzen zitzaizkioan horrelako esamesak jendeari. Herriko jendailari.

Berehala jakinarazi nian, gogoratzen?:

– Iñigo, bazekiat ez dela hire gustukoa izango, baina herrian bala-bala zebilek hi izan hintzela aita zenaren hiltzailea. Maria Teresak salatu hinduen.

Ez hintzen haserretu, lasai-lasai altxatu hintzen aulkitik, patxada ederrean, eta hala esan huen:

–Ea, ea, hori nik neuk entzun behar diat.

Hura ahoskatu eta alde egin huen astiro. Gau hartan ez nian lorik egin, izugarritzko ezinegona neukaan. Ezinegon hotza, iluna. “Iñigo gizajoa, sufritzen ari denarekin...” pentsatzen nian. Hik noizbait egin al duk negar, Iñigo? Edota besteok egin behar izan diagu hire ordezt? Hik lasai egiten huen lo, ni zorigaiztoko ametsetan itotzen ninduan bitartean. Hik lasai abesten huen, nik garrasika oihu egiten nian bitartean. Ni hondoraturik nengoan.

Egunak pasa zituan nik Maria Teresarena kontatu nianetik, eta jabetu nahi izan nianerako herrian bazebilean ahotik ahora beste esamesa potolo bat: Sebastian unaia, gure aitaren lagun-min handia, izan omen zuan aita zenaren benetakoko hiltzailea. Nik ez zekiat nola loratu zuan esamesa hori herritarren artean, baina morroi harenganako amorrua piztu zitzaidan.

Sebastian gizarajoa egun gutxira zendu zuan. Hik ez huen imintziorik egin, eta hire izen txarra zikintzen saiatu izanagatik Jaungoikoak Maria Teresa zigortu ziala hioen. Ez zitean hiltzailea harrapatu, eta eskerrak, ez badiat inoiz esan ere, ni izan baininduan Sebastian koldarraren borre-
roa. Morroi alu hark ez zian bizitzerik merezi; hiltzaile madarikatua!

Izugarritzko lasaialdia izan zuan niretzat, jada aitaren hiltzailea aurkitu baikenian, baita deu-

seztatu ere! Hala, lo bapo egingo niala pentsatu nian, eta behingoagatik gozo amestuko nialakotan nengoan. Baina nahiz eta barrunbeetan bizkarroi izandako antzigar gehiena joan, hor gelditu zuan pitin bat, bizirik edo.

Lehenengo egunetan lo egitea lortu nian, baina lotan amets beldurgarriek irensten ninditean. Egunak joan ahala barrunbeetako antziggarra indarra hartzen joan zuan, hotza hezurren muinetatik azazkalen puntetaraino iritsiaz. Halako batean, gorputza izoztu zitzaidala oroitzen diat, eta geure jauregitxoan gelditu ninduan, pareten itzalpean; atsedean hartzen agian, gehiago gaixotzen beharbada.

Ziur nagok gogoan tinko geratu zitzaiala egun hotz hartan gertatutakoa. Biok geure etxe handi eta aberatsean geundean; sutondoan gozo-gozo. Baina halako batean, gorputza astintzen hasi zitzaidaan zoroki; eta lurrera jausi ninduan.

Ahalegin itzela egin ostean betazalak goratzen lortu nian; ene logela zabalean nengoan botata, nire ohe erosoaren gainean zerraldo. Gogoa arrunt nekatua eta astuna sentitzen nian, itzalpean egon den lore zimelaren antzera; hiltorian. Ez zekiat nola, baina nire gogamenak jauzi erraldoi bat egin zian denboran zehar, eta bospasei urte lehenagoko uda onberaren egun argitsu baterantz eramán nindian.

Hi aitaren hiltzailea hintzela esan zidatean egun hartan. Pernando artzainak axolagabeki ziostaan hura, hari ez baitzegokioan kontu hura. Une hartan ez nian kasu zipitzik ere egin, baina oroitzapenak gogoratzen nitian bitartean konturatu ninduan. Arrazoiak erabat sendoak zituan. Berez, hi izan hintzen aita zenaren hilketaren ondotik “garaile” atera hintzen bakarra: jaraunspen osoa jaso huen, eta aberastasunak laukoiztu ahal izan hituen. Pozoitu baldin bazitean, etekinak kentzeko asmoz egingo zitean, eta hi hintzen segur aski interesatuen egon hintekeena.

Oroitzapen haren berri izan eta brast altxatu ninduan ohetik. Ez zekiat zer indar klasek bultzatzen nindian, baina ongi aski gogoratuko duan legez, hiregana zuzendu ninduan niregan ezohikoa zuan abiadaz, eta bultzada batez lurre-ra jausarazi hindudan.

– Hik hil huen gure aita zena! Eta hik akusatu huen Sebastian unaia! Urde alaena!

Hitz haiek bota ondoren gainera oldartu nintzaian, ukabilkada gogor bat joaz. Hire odolak lurra zipriztindu zian, eta izua begietan huela, hala zuzendu hintzaidan:

– Erotua hago! Erabat jota hago!

Jaregin nian eta arrapalada batean harrizko egongela utzi eta danbateko ozen baten atzean desagertu hintzen.

Orduan izan zuan. Indarrrik gabe bezala gelditu ninduan. O, bai! Erabat zurrun, akiturik. Bihotzeko zuntzak izozten zizkidan bisuts beltz batek astindu zidaan gorputza, zabuka hasi eta lurrera brau erori ninduan. Ez zekiat zenbat denbora egon ninduan lurrean, baina zin zagiari infernu gorrimin gordina baino okerragoa izan zela hura. Oroimen zahar galduek eraso zidatean ene gogo ñabar, zikin, beltz hura.

Egun oskarbi batean, zeru urdinaren pean, aitaren behiak zaintzen ari nintzen bitartean, hi agertu hintzen larritu antzean. Kezkak barrua itotzen zian, begietan islaturik heraman. Eta nigana hurbildu hintzen, gogoratzen al duk?:

–Mikel, hitz egin behar diagu.

–Esak ba –esan nian hotz.

–Beno, bart hitz egin genianaz nahi diat mintzo.

–Esan nian ba, ni ez nagok horrelakorik egiteko prest. Egin izan ditiat hik eskatutako eginkizunak usu, baina hau bestelako duk...

–Ez al haiz konturatzen? Baboa, aita gure kontura bizitzen ari duk. Ama hala hil zuan, aitaren setarekin erabat ahituta. Ez bazioagu aurea hartzen gureak egingo dik. Zer diok?

–Ez zekiat, sakon hausnartu behar diat. Ez duk kontu makala gero! –ihardetsi nian duda-mudatan

–Entzudak, ene anaia, zergatik ez didak behingoagatik sinesten? Hago lasai, biok batera atera-

ko gaituk ataka honetatik, eta gogora itzak ene hitzak: Ez haiz inola ere damutuko –hura esan eta begiak malkotan busti zitzaizkidaan, eta ezer esan baino lehen hik zabaldu huen ahoa– Tira, ez egin negar eta hator hona!

–Iñigo, izugarri maite haut –esan nian haus-korki, malko artean, hire besotzarrek ene bizkar hauskorra inguratzen zidaten bitartean.

Udaberriko egun ahaltsu bat zuan, aztikeriaz beteriko horietako bat. Hi kanpoan hengoan, eta ni basora hurbildu ninduan fruitu batzuen bila. Geure etxetxo zikinera marrubiz beteriko otzara batekin itzuli ninduan. Atea ireki eta barrura sartu ninduan, bertan giro freskoa zegoan:

–Eguerdi on aita! Zer moduz gabiltza? –zuzendu nintzaioan irribarre batez, maitekiro.

–Ondo esan beharko. Hi non demontre sartu haiz?

–Barka iezadazu ez ohartarazi izanagatik, basoan izan naiz eta marrubi sorta bat ekarri dizut, nahi al dituzu? Arrunt gozoak daude –esan nioan otzara eskainiz.

Aitak adurra zeriola begiratu zidaan, eskua emeki luzatu eta ahur bete marrubi hartu zian. Ondotik, eskua ahora sartu eta bertan marrubiak odolustu zitian. Hori bera errepikatu zian lauz-pabost aldiz:

–Oraintxe bapo nagok, utzidan lo-kuluxka lasai egiten –mintzo zitzaidaan axolagabeki. Nik

bien bitartean lastimaz begiratzen nian aita gizajoa; ja ez zegoan atzera bueltarik. Egina nian honezkero.

Ez zian asko iraun lozorroan. Tripako min ika-ragarri batek astindu zian aita gizajoa. Nik izerdi hotzetan nola iraulkatzen zuan ikusi nian, nola pixkanaka haren garra itzaltzen zihooan. Eta ez nian ezer egin. Ni han gelditu ninduan aitari so, itxaronean edo. Azkenean intziriak amaitu zituan, eta otsoak bezain fite behebitu ninduan herrira, on Manuel apaizari gaztigatzera.

Kolpean ernatu ninduan. Segur aski infernuko amesgaizto beltzenak ere ez dituk hain bortitzak izango. Une hartantxe konturatu ninduan ez nintzela errealitate gordinaren eta alegiazko munduaren arteko muga mehea bereizteko gai. Orduan goragalea etorri zitzaidan eta botaka egin nian, nire barruak hustuz.

Ordudanik ez zioat neure gogoia mailukatzeari utzi, gau eta egun, ene aita laztana nola iraulkatzen zuan gogoratuz. Behin baino gehiagotan galdetu izan zioat neure buruari ea oroitzapenak edo amesgaiztoak zituan, baina esadak hik, anaia maitea, nola galdetu zerbait zoratuta dagoen buru bati?

Bazakiat, urteak egon nauk geure jauregitxotik atera gabe, leihoetatik at zegoan mundu hits eta kaotikoari so egin gabe. Bertan egun hotz eta gogorak pasa nitian, buruari eragiten edo. Erabat isolaturik. Begirada galdu eta goibela nian,

eta bakarka mintzo nintzaioan neure buruari. Herrian jota nengoela ziotean, eta mirabeen artean Mikel Eroa bezala ninduan ezagun. Hi gutxitan etorri hintzaidan bisitan. Bakarrik nengoan. Egun horietan hire hitzak gogoratzen saiatzen ninduan: *ez haiz inola ere damutuko*. Ba beti izan nauk damu. Beti.

Askotan pentsatu izan diat zertarako bizi nizen, nire eginkizuna besteek nahi dutena egitea bada. Sakon pentsatzen jarrita, Iñigo, beti egin izan diat besteek eskatutakoa. Ni tresna hutsa izan nauk, eta ez gizaseme askea. Hire menpe egon den otsein zikin bat besterik ez nauk izan, beti hire agindu eta beharrak betetzen. Nekatu ninduan! Ulertzen? Ahituta nengoan.

Horrelaxe bizi izan nauk gaur arte. Gaur goize-ra arte. Goizean goiz jaiki eta indar bortitz baten baitan kanpora irten nauk. Egunaren argiak seko itsutu naik, nire azal zurbil zuria erreaz. Ibiliaren ibiliaz itsaslabarrera iritsi nauk. Goiko itsaso urdin eta bare hartan nabigatzen zitean hodei zuriek egunsentiko eguzkiaren printza epel eta gorrimitatik nola estali nauten sentitu diat une hartan, eta haize leun gozo batek aurpegia ferekatu zidak maitekiro. Itsaslabarrera egin diat so, olatuek indartsu egiten zitean talka harritzarren aurka; guda zoro bat zirudian, harritzarrek tinko eusten ziotean, eta olatuek behin eta berriz ekiten ziotean temati.

Zeruertzera zuzendu diat begirada; zeru eta itsasoaren arteko nahasketa zehaztugabeak sortzen zian paisaia ñabar hark arrunt liluratu naik. Eta gogoan giltzaturik nitian sentimenduak askatzen joan zaizkidak, kaiolatik irten berri diren txoritxoak legez. Brinkoka itzuli nauk geure jauregitxora, aspaldidanik, aurpegian irri-barre zabal bat marraztuz.

Hala, ene otzara maitea hartu eta basora zuzendu nauk, betiere salto eta brinko artean; erdi txistuka, erdi kantari. Zuhaitz eta haizearen arteko doinu liluragarrian murgildu diat neure gogoa, eta beste behin egin nian bezala, marrubiak biltzen hasi nauk. Mordoxka bat bildu ostan basotik irten nauk. Ez dik luze jo marrubiak pozoitzeak, eta amaitu orduko etxera abiatu nauk irriño zital bat ezpainetan marraztuz.

Geure jauregitxora sartu eta Inazio mirabearekin egin diat topo, harrituta geratu duk ni osteratxo bat ematera joan izanagatik. Hi ere seko harritu haiz:

–Hara, hara, gure Mikel kanpoan izan duk eta!

–Osteratxo bat behar niala pentsatu diat, anaia, eta bide batez marrubi urtsu batzuk ekarri ditiat, ikusiko duk, apartekoak zeudek –esan diat zitalki– etor hadi ene logelara eta elkarrekin gozatuko dizkiagi. Zer diok?

–Ados –ihardetsi duk txunditu antzean.

Ezingo nitek garbi esan zenbat denbora igaro duan ezinaren ezinaz iraulkatzen hasi haizenetik, azkeneko min oihua bota duanetik edota bihozberatasun, errukitasun eske igorri didaan atzen sotik. Ez zekiat ziur zenbat denbora daradaman hiri txatxukeria hauek guztiak kontatzen, hire burua emaro, ezтики laztantzen nian bitartean. Aurpegi polita duk, bahekieen? Ez nauk harritzen aitaren kutunena izatea.

Orain, ene altzoan haudala, hire so amatatu eta barea, bristada zuri sarkorrekin ene arima galdua zipriztinduz, nire gogo beldurgarria maltzurki limurtzen saiatzen ari duk. Baina oraingoan ez, oraingoan ez nauk tronpatuko, hire mizto madarikatu horrekin beti egin duan bezala. Oraingo honetan neuk hartu diat aurre, heu izan haiz atzipetua eta ni neu azpijalea.

Eta azken agur gisa, ene anaia enea, emadak besarkada bat, estutu nazak tinko, otoi! Ez ahan-tzi izugarri maite haudala. Eta zorioneko bidaia izan dezaala hoan lurralde ezezagunetarantz. Agur, Iñigo. Goian bego.